

## HITZAURREA

Liburuki honek “*Lana Euskal Herrian*. El trabajo en Vasconia” izenburupean Donostiako Miramar Jauregian 1999ko abenduaren 16 eta 17an egin ziren Tokiko Historiaren VI. Jardunaldien aktak biltzen ditu. Ekitaldi horiek betiko ildoari jarraituz antolatu zituen Eusko Ikaskuntzako Historia-Geografia Sailak, hots, bi urtez behin gure historiografiaren gai monografiko garrantzitsu baten inguruan hainbat eremutako adituak bilduz.

Azken urteotan, hain zuzen ere, Europan lanari eta langileei buruzko azterlanak indarberritu egin dira gaiak dituen hainbat alderditatik –antropologia, legea, politika, gizartea, teknologia...–, dentsitate desberdinez eta hurbiltze mota anitzien bidez baina munta handiko eztabaidak sorraraziz maiz askotan. Jardunaldien antolatzaileek atsegin handiz egiaztatu dute gai horrek berez Euskal Herrian pizten duen interesa, alor horretan dituen berezitasunak direla medio, adituen ardurarekin bat datorrela. Partaidetza nabarmena izan da, aurkezturiko hogeita hamabi komunikazioek (bat izan ezik denak agertzen dira hemen) ongi erakusten dutenez; bestalde, agerian geratu da lan horien sakontasun analitiko-esplikatiboa, eta partehar-tzaileen arteko eztabaiden maila garrantzitsua izan da.

Orekatua nahi izan genuen gaien azpibanaketa –sei lan-atal– ezartzeak, gai horien egun-egoera aztertzen duten azken proposamenen bateragarritasuna agerraraztea bideratu zuen. Agertze kualitatibo argia zen atal horien helburua, ekarpenen bereizgarriak seinalatzearekin batera. Hala beraz, emaitza orokorrak planteamendu nagusien inguruko ebaluazio historiografikoa egitea ahalbidetzen du. Kointzidentziak nabarmendu ziren, bai metodologiaren aldetik –informazio iturri seriatu eta homologagarri baina irekien erabilera ahal den heinean, hainbat disziplinetatik datozen miaketa-tekniken erabilera...– bai gaien aldetik, hala erakarpen-guneak (ordainsariak, generoaren araberako banaketa, aldaketak izan arren iraun egiten duten zerak, eta abar), nola gutxien garatu diren gaitetan, iturri arazoengatik edo, agian, epistemologia tradizioari dagozkion arazoengatik.

Hemen zehaztu eziniko beste hainbat ekarri baliotsuren artean, azken bosturtekoan disziplinar-teko bilera bik markatu dute lan harremani buruzko produkzio historiografikoa: Gizarte Historia Elkartearen Bigarren Kongresua, “Lana Historian zehar” izenburukoa, Kordoban egina, 1995ean, eta Lan Harremanen Historiari buruzko Lehen Jardunaldiak, ondoko urtean Sevillan egindakoak. Bilkura horietan, bere osotasunean harturiko historia sozial bat berreskuratzeko deia egin zen, eta harrezkerotik aurreratu egin dugu ildo horretatik, eta ez gutxi. Gure kasuari gagozkiola, lanaren gizarte eta kultura alorretik produkzio eta enpresa eredu azterketara zihoazen ikuspuntu desberdinen bilgune izatea hautatu genuen. Praktikan, Jardunaldien planteamendu horrek, lehen Errestaurazio aldiko industria lanaren inguruko gai “klasiko” batzuen berrinterpretazioaren ondoan, gutxiago ukituriko aldiak –orain amaitzen den mendeko azken bi hamarraldiak barne– nabarmentzea ekarri du. Ikuspegi kronologiko zabal horrek lan-munduaren –errealitate iraunkor eta aldakor horren– iragana, oraina eta etorkizuna ikuskera osagarritan elkar lotzea lortu du, komunikaziogileen lan ego-kiari esker.

Elkar lotze hori areagotu nahirik, batzorde antolatzaileak mahai-inguru bat proposatu zuen amaiera ekitaldi gisa, non gizarte agenteen ordezkariak eztabaidatu behar zituzten egun bero-bero diren arazoak eta hurrengo urteetarako begizaturiko joerak. Halaber, lau parte-hartzaileei eskertu nahiko genieke zuzenean beren iritziak aurkezteko harturiko ardura; irizpide horiek transkribatu egin ditugu irakurtzea merezi duten interes handiko orri batzuetan.

Bestalde, orain zehazki kritikoa litzatekeen balorazioa egin beharko genuke Jardunaldiotan azaldukoan gertaturiko gabeziez –parte hartzaileek berek maiz aski adieraziak–, iker-tzaileen komunitatearentzat erreferentzia gisa balioko duelakoan. Lehenik eta behin, Gaur egungo Historiaren inguruko ikerlanak izan dira nagusi, artisau lanari buruzko atalean izan ezik. Bestalde, eremu geografikoari dagokionez, ez gara egungo Euskal Autonomia Erkidegoaren esparrutik harago joan. Bistan denez, logikoa zen aurkezturiko komunikazioetan lurralde historikoen ardura nagusien aipamena egitea.

Demografiari dagokionez, komenigarria litzateke migrazioen ondorio sozialetan eta horiek jarrera politiko eta sindikalekin duten loturaren inguruan sakontzea; edota adinen araberako eginkizunen bilakaerari buruz. Produkzio eredu desberdinak aldi berean gertatzeari eta batetik bestera igarotzeari dagokien terminologia berrikusi beharra dugu. Esparru ez industrialen presentzia, hala nola nekazaritza lana, zabaldu egin beharko da, bai eta langileenak ez diren lan harremanen tratamendua ere, hala nola enpleguak, lanbide liberalak edo saripeko ez diren laguntza eta etxe barneko funtzioak. Emakumeen etxeko lana ahazteko joera izan ohi da, familiaren iraupenerako ezinbestekoa bada ere, garapenari buruzko gure teorizazio modernoaren arabera. Generoaren tratamendua osatzeke dago oraino: familiaren diru sarrerak eta, ondorioz, lanaren zatiketan duten eragina sakonago aztertu behar. Esan gabe doa haurren lanak izan zuen garrantzia; egiaztatu ahal izan dugunez, ikerketa interesgarriak bideratu ditu gai horrek.

Lan prozesuei helduz geroz, premiazkoa litzateke lan metodoek izan duten eragina eta bilakaera azpimarratzea, hala lan harremanei nola langile klaseak horretaz izan duen pertzepzioari dagokienez ere, bai eta jadanik erroturiko lan ohitura eta kulturetan eraginiko aldaketak, eta dagozkien ondorioak. Hasieran aurreikusiriko zenbait adarrek, hala nola Medikuntzaren edo Zuzenbidearen Historiak, ez dute espero genuen hedadura hartu. Azkenik, lan harremanetako gatazkaren tratamendu aldeanitzaren eta, hedaduraz, lanari loturiko politikaren presentzia urria seinالاتu beharrean gaude, Jardunaldien erreferentzia marko bikaina ezarri zuen hasierako hitzaldian nabarmendu bezala –beste interpretazio-giltzen artean–.

Amaitzeko, espero dugu Jardunaldion egintzan esku hartu duten pertsona guztien aha-lerinak laguntza handikoa gertatu izana euskal azterketa sozio-historikoaren aurrerapenean, etengabe zabaldu eta ikuspegi eraberrituak agertzen ari den alor batean.

Bilbo, 2000ko uztailaren 7an

Mikel Aizpuru, Norberto Ibáñez, José Antonio Pérez, Enriqueta Sesmero  
*Argitaratzaileak*

## PREFACIO

El presente volumen recoge las actas de las VI Jornadas de Historia Local que sobre el tema "*Lana Euskal Herrian. El trabajo en Vasconia*" se celebraron en el Palacio de Miramar de Donostia-San Sebastián los días 16 y 17 de diciembre de 1999 organizadas por la Sección de Historia-Geografía de Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos, siguiendo su tónica de reunir bianualmente a especialistas de muy diversos ámbitos en torno a un tema monográfico relevante para nuestra historiografía.

En efecto, en los últimos años hemos asistido a una revitalización de los estudios europeos sobre el trabajo y los trabajadores en sus múltiples facetas -antropológicas, jurídicas, políticas, sociales, tecnológicas...-, con irregular densidad y variedad de aproximaciones pero generando muy a menudo discusiones de gran relevancia. Para los organizadores de las Jornadas ha supuesto una satisfacción constatar que el interés que de por sí suscita esta cuestión en Euskal Herria, debido a sus peculiaridades al respecto, tiene su correlato en la dedicación de los especialistas. Ha quedado patente por la notable participación, reflejada en las treinta y dos comunicaciones presentadas (todas ellas publicadas aquí excepto una), la profundidad analítico-explicativa de éstas y el significativo nivel de los debates entre las personas participantes.

El establecimiento de una subdivisión temática, que se intentó equilibrada, en seis secciones de trabajo permitió expresar la confluencia de las últimas propuestas sobre el estado de la cuestión. Esos apartados pretendían revelar una manifiesta exteriorización cualitativa, con la consiguiente caracterización de las diferentes aportaciones. Por tanto, su resultado global permite una evaluación historiográfica sobre los planteamientos dominantes. Se pusieron de relieve las coincidencias metodológicas -uso de fuentes de información seriadas y homologables pero abiertas en lo posible, de técnicas de rastreo procedentes de diversas disciplinas...- y temáticas, tanto en los puntos de atracción (remuneración, división por género, pervivencias pese a las transformaciones, etc.) como en aquellos menos desarrollados aún por problemas de fuentes o, quizá, de tradición epistemológica.

Entre otros aportes valiosos que es imposible detallar aquí, a inicios del último quinquenio dos reuniones multidisciplinares han marcado la producción historiográfica sobre la relaciones laborales: el Segundo Congreso de la Asociación de Historia Social celebrado en Córdoba en 1995, titulado "El trabajo a través de la Historia", y las Primeras Jornadas de Historia de las Relaciones Laborales convocadas en Sevilla al año siguiente. En ellas se hizo un llamamiento a la recuperación de una historia social globalizadora, y en este sentido desde entonces se ha avanzado, y no poco. Para nuestro caso se optó por un encuentro entre diferentes visiones que iban desde el campo sociolaboral y cultural del trabajo hasta el análisis de los modelos productivos y empresariales. En la práctica esto ha permitido durante las Jornadas que, junto a una reinterpretación de ciertas cuestiones "clásicas" del trabajo industrial durante la primera Restauración, se haya hecho énfasis en períodos menos tratados y en los dos últimos decenios del siglo que ahora acaba. Esa dilatada perspectiva cronológica ha logrado que el pasado, el presente y el futuro se entrelazaran en visiones complementarias de

una realidad constante y cambiante como es la del mundo del trabajo, gracias al buen que-hacer de los comunicantes.

Intentando estrechar esa imbricación, el comité organizador propuso como acto final una mesa redonda en que representantes de los agentes sociales dialogaran sobre problemas candentes de la actualidad y las tendencias que se avistan para los próximos años. Quisiéramos asimismo agradecer a los cuatro participantes su preocupación por presentarnos de forma directa sus opiniones, que hemos transcrito en unas páginas de indudable interés y merecida lectura.

Por otra parte, habría que entrar ahora en una valoración propiamente crítica de las ausencias en lo expuesto en estas Jornadas -no pocas veces sugerido por los propios participantes-, que podrá servir como referencia para la comunidad investigadora. Para comenzar, han dominado las investigaciones centradas en la Historia Contemporánea, salvo en la sección sobre el trabajo artesanal. Por otro lado, en cuanto al ámbito geográfico no se ha ido prácticamente más allá del marco de la actual Comunidad Autónoma Vasca, sobre todo Bizkaia y Gipuzkoa. Evidentemente, era lógico que en las comunicaciones se hiciera referencia a las dedicaciones dominantes de los territorios históricos tratados.

En lo demográfico, convendría profundizar en las consecuencias sociales de las migraciones y su relación con posicionamientos políticos y sindicales; o sobre la evolución de las tareas por edades. Debemos revisar la terminología referente a la coexistencia y tránsito entre diferentes modelos productivos. La presencia de esferas no industriales, como el trabajo agrícola, habrá de ser ampliada, así como el tratamiento de aquellas relaciones laborales no obreras, caso de empleados, profesiones liberales y funciones domésticas o asistenciales no asalariadas. Se tiende a olvidar el trabajo femenino en el hogar, esencial para la supervivencia familiar, según muestra la moderna teorización sobre desarrollo. Sigue pendiente completar el tratamiento de género, profundizando sobre los ingresos familiares y su consiguiente influencia en la división del trabajo. Ni que decir tiene la importancia del trabajo infantil, que hemos comprobado permite interesantes investigaciones.

Entrando en los procesos de trabajo, sería necesario insistir en el influjo de los métodos de trabajo y su evolución tanto en las relaciones laborales como en su percepción entre la clase trabajadora, al igual que los cambios en aquellas costumbres y culturas del trabajo ya enraizadas, con sus correspondientes consecuencias. Ramas previstas en inicio, como la Historia de Medicina o del Derecho, no han tenido la extensión que esperábamos. Por último, indicaremos la escasa presencia de un tratamiento multifacético del conflicto en las relaciones laborales y, por extensión, de la política vinculada al trabajo, como se destaca -entre otras claves interpretativas- en la conferencia inaugural, que dio un excelente marco de referencia a las Jornadas.

Para concluir, esperamos que el esfuerzo de todas las personas comprometidas con la celebración de estas Jornadas haya contribuido de modo significativo al avance del análisis sociohistórico vasco en un campo en continua expansión y de renovadas perspectivas.

Bilbao, 7 de julio de 2000.

Mikel Aizpuru, Norberto Ibáñez, José Antonio Pérez, Enriqueta Sesmero  
*Editores*